



Arartekoaren 1/2013 Gomendio Orokorra, urtarrilaren 18koa Deribazio judizialaren bidez familia elkarguneen erregulazioa eta funtzionamendua

I. Sarrera

Familia elkarguneak (aurrerantzean FE) *“seme-alaben eta aitaren, amaren, bien, tutoretza edo zaintza esleituta duen pertsonaren edo beste ahaideen arteko harremanak, behin-behinean, bermatu eta errazteaz arduratzen diren gizarte zerbitzuak dira, hain zuzen, banantze, dibortzio, deuseztapen prozesuen edo egitatezko loturen neurriak erregulatzeko prozesuen ondoriozko egoeretan”* eta, mutiko-neskatilen eta familia egoera gatazkatsuak kudeatzeko urrats esanguratsuak dakartzate nerabeen eskubideak aintzat hartzeko ikuspegitik. Xede hori lortzeko laguntza baliabidetzat jotzen dira eta helburu bikoitza dute, alde batetik, haurren eta gurasoen harreman egonkorrak segurtasun baldintzetan bermatzea eta, bestetik, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak hobetzea, gurasoen eskumenak gain hartzea erraztuz.

Familia elkarguneei dagokienez, Ararteko erakundearen kezka aspaldikoa da baina bereziki bizia izan zen 2007. urtean. Izan ere, urte horretan hainbat kexa jaso ziren erakunde honetan zerbitzuarekin pozik ez zegoen jendearen eskutik, bai eta zenbait funtzionamendu irizpideri buruzko kritikak ere. Horien bitartez, haren egoerari buruzko ezagutza nahiko zehatza lortzen da. Gogorarazi behar dugu urte horretan ez zegoela horren gaineko araudi erregulatzailerik, ez zegoen argi eskumen bakoitza nori zegokion, ezta derrigorrezko hornikuntzako zerbitzu publikoei buruz ari ginen ere. Izan ere, Bilbon foru aldundiari zegokion bat kokatuta zegoen, Portugaleten udalarena zen beste bat zegoen, Gasteizen bezala eta Irunen eta Donostian gainontzeko biak zeuden, biak pribatuak, Kidetza elkartearenak hain zuzen. Eta horietan guztietan zerbitzua ematen zen, beharbada maila desberdinetan, deribazio judizial bidezko kasuei zein beste batzuei (babes sisteman zeuden adingabeak batez ere).

Urte hartako gabeziak batez ere Gipuzkoan izan ziren eta baten bat Araban eta askotariko alderdiak jorratzen zituzten: finantzaziorik eza, baldintza material desagokiak, zerbitzuaren erabileraren hasieran egondako atzerapenak, segurtasun neurri eta bisitaldien kontrol eskasa (batez ere, genero indarkeriari lotutako kasuetan), txostenen neutraltasunik eza, profesionalen txandakatze handia edo ratio desagokiak, etab.

Alderdi horietako asko bere osotasunean jorratu ziren *Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko familia elkarguneak arautzen dituen uztailaren 1eko 124/2008 Dekretuan*. Lortutako informazioak agerian jarri zuen arauan ezarritakorantz urratsak ematen ari zirela. Ezezagunik handiena Gipuzkoa zen eta hori guztia Eusko Jaurlaritzak eskumena bere gain hartzen zuen bitartean.



2011. urtearen hasieran, deribazio judizialaren ondoriozko familia elkarguneak arautzeko aipatutako dekretuaren xedapen iragankorrean ezarritako bi urteko epealdia bukatu zenean, ofiziozko jarduera bat ireki genuen egindako aurrerapenak eta egoera baloratze aldera eta horren esparruan: Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari deribazio judizialaren bidezko familia elkarguneen zerbitzuari buruzko informazioa eskatu zitzaion (ordurako dagoeneko *gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko* gizarte zerbitzuen euskal sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoko zatitzat jotzen zen); Donostiako deribazio judizialaren bidezko familia elkarguneetara ikuskapen-bisitak egiten ziren, gainontzekoen artean lehenetsua zuen iaz jasotako kexen artean hark gehien jaso baitzituen eta bertan jazo baitziren aldaketa gehien: erakunde titularra, kokapena, baldintza materialak, erakunde kudeatzailea, profesionalak, jarduera protokoloak...

Araudipean jardueraren hiru urteetan jazotako aldaketa positiboa, erakunde honen ustez, berehala antzeman zitekeen, kezkatzen gintuzten kontu batzuk egon arren eta horien berri eman genuen Eusko Legebiltzarrarentzako 2011ko urteko txostenean (Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren eranskina) eta, horregatik, aipatu alderdien bilakaeraren jarraipena egitea komenigarria zen. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari eta Justizia Sailari horren guztiaren berri eman zitzaion, izan ere, *deribazio judizialaren bidezko familia elkarguneak arautzen dituen dekretuaren aldaketari buruzko azaroaren 22ko 239/2011 Dekretuan* xedatutakoari jarraiki, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera zerbitzuko ardura azken horrek hartuko zukeen gain.

Aipatu jarraipenarekin segitzeko asmoz, antzemandako kezka-elementuak bereziki aintzat hartuta, 2012ko urrian zehar, erakunde honetako langileek deribazio judizialaren bidezko bost FE bisitatu zituzten –horietako lau Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren ardurapean eta bat udal eremukoa- eta horien kudeaketaz arduratzen ziren arduradun eta profesionalekin elkarrizketak izan zituzten. Hala, Gasteizko, Donostiako, Bilboko, Portugaleteko eta Barakaldoko elkarguneak bisitatu ziren –azken hori udalaren ardurapean dago-. Horrez gain, Enkarterriko familiei estaldura ematen dien beste elkargune bat dago, Zallan kokatutakoa, hori ere udal ardurapean dagoena, Portugalete eta Barakaldoko elkarguneei arreta ematen dien erakunde berak kudeatzen ditu eta, horregatik, irizpide tekniko berak jarraitzen ditu. Beraz, erakunde honek bost elkargune bisitatzeko eta horietako lauren profesionalak ezagutzeko aukera izan du.

Halaber, familia elkarguneetan profesionalekin bilguneen lehenengo fase hori amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko arduradunekin bilera bat izan zen, lehenengo balorazioa helarazi eta hainbat alderdi egiaztatzeko.

Azkenik, zenbait familia-epaileren laguntza eskatu zen eta horiek prest zeuden erakunde honek mahaigaineratutako kezka batzuen gaineko iritzia emateko –aipatu kontuetan esperientzia handia dutela aintzat hartuta-.



Hortaz, gomendio hori lan honen guztiaren ondorioa da eta erakunde honen iritziz hobe daitezkeen elementu horiek aipatu nahi ditu.

II. Gogoetak

II.1. *Arau esparrua*

Arlo honetan euskal administrazioei eskumenak ematen dizkieten xedapenek zehazten dute, baita 124/2008 Dekretuko zioen azalpenak apelatzen dituen oinarriko erreferentziek ere: Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20koa; Kode Zibila, adingabeek zaintza ez duen gurasoekin dituzten harremanak arautzen dituen 90-94. artikuluetan eta 160. artikuluan, aldiz, aiton-amonekin eta beste ahaide batzuekin; Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa; Estatu kideetako Ministroen Batzordeko Europako Kontseiluaren gomendioa G(98), familia bitartekaritzari buruzkoa, 1998ko urtarrilaren 21ekoa; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Haurren eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legearen III. Titulua.

Azterketa orokorretik, gure ustez, FEen bidezko botere publikoen esku-hartzea oinarritzen duten bi printzipio ondorioztatzen dira:

- Amarengandik edo aitarengandik bananduta bizi diren hurrek eta nerabeek bi gurasoekin zuzeneko harreman arrunta izateko duten eskubidea, baita horien bien familiekin ere, alde batera utzita gurasoen artean zein harreman dagoen eta, betiere, haien interesen aurkakoa ez denean.
- Profesional neutroak modu eraginkorrean baliatzea sustatzeko egokitasuna, familiekin haien egoera gatazkatsua konpon dezaten laguntzeko -kasu bakoitzean agintaritzak judizialak baliabide hori erabil dadin agindu du:-
 - Gurasoei harreman-arazoei buruzko orientazioa eman –izan ditzaketan autonomia edo gizarte eta hezkuntza arlokoak-.
 - Epaitegiari egoeraren bilakaeraren berri eman.
 - Adingabeei laguntza eman, prozesuan zehar askatasunez adieraz ditzaten haien sentimenduak eta premiak.

Azken batean 124/2008 Dekretuko 4. artikuluan FEetarako aipatutako berariazko xedeak bete daitezkeen hartutako neurriek eman behar diete erantzuna printzipio horiei. Horiek hartu behar dira oinarritzat, orduan, aipatu baliabideek haien zeregina nola gauzatzen duten ikustean bildu ditugun datuak egiaztatzeko, bai bitarteko materialei dagokienez bai funtzionamendu irizpideei dagokienez.





II.2. Antzemandako urratsak

Bidezkoa da hasiera-hasieratik azpimarratu eta agerian jartzea deribazio judizialaren bidezko familia elkarguneak kudeatzen dituzten profesional talde guztietan antzeman dugula profesionaltasuna eta jardun ona. Haiekin partekatutako hausnarketetan argi geratu da haien esku-hartzeak zerbitzu horietara gurasoren batekin komunikatzeko jotzen duten haurren eta nerabeen ongizatearen kezka duela oinarri. Azken helburu hori da, hain zuzen, haien esku-hartzeak aintzat hartzen duena.

Familia elkarguneetan lan egiten duten profesionalek haien zeregina baldintza konplexuetan burutzen dute, krisian dauden eta gatazka maila handia duten familiei ematen baitiete arreta. Batzuetan, gatazkan sartuta dauden alderdiek aliantzak bilatzen dituzte eta profesionalen jarrera bat eskatzen dute, teknikariak gatazkan tartean sar daitezzen nahi izaten baitute. Ildo horretan, azpimarratu behar da talde guztietan oso argi dagoela inpartzialtasunak eta neutraltasunak haien lana gidatu behar dutela.

Halaxe egiaztatu dugu bai profesionalek jasotzen dituzten orientazioetan, bai ezagutu ditugun epaitegi deribatzaileetara bidalitako txosten teknikoetan. Txostenei dagokienez, esan behar dugu objektiboak, zehatzak direla eta profesionalek azpimarragarritzat jotako gorabeherak bakarrik jasotzen dituztela, deskribatzaileak direla, balio-judiziorik sartu gabe, eta, batzuetan, organo judizial deribatzaileari aurreikusitako komunikazioaren araudiaren egokitasunari buruzko proposamenak eta orientazioak egiten dizkiotela. Halaber, familia elkarguneetan eta hartu-emanen lortutako informazioa eta familietatik jasotakoa bildu eta sistematizatzeko taldeek baliatzen dituzten tresnen berri izateko aukera eduki dugu –horrek gero aipatu txostenak egiteko balio du-.

Beste kontu batzuei helduz, esanguratsua iruditzen zaigu profesionalen aldetik antzeman dugun inplikazioa. Horiek batzuetan haien berariazko zeregina baino harago doaz, hainbat kasutan gatazkan bertan bitartekaritza-lanak eginez, beste batzuetan zenbait eragileren arteko komunikazioa erraztuz, esku-hartze intentsuagoak eginez, etab. Bitartekaritza-lanen intentsitatea agerikoagoa da FE batzuetan beste batzuetan baino. Dena den, guztietan bistakoa da profesionalek familia arazoak konpontzeko baldintzak ezartzeko duten nahia eta, azken batean, familia harremanak eta gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa normaltasunera itzultzeko duten grina.

Beharrezkoa da adieraztea hertsiki bete behar direla dekretu arautzaileak xedatutako segurtasun eta babes sistemak, hain zuzen, genero indarkeriazko egoeren zioz babes neurriak dituzten kasuetan. Talde teknikoaren sentsibiltatea kasu horietan erabatekoa da.





Horrez gain, adierazi nahi genuke profesionalen talde guztiek aipatu dutela Udaltzaingoarekin eta Ertzaintzarekin egon badagoen koordinazio ona, genero indarkeriazko egoeren ondotik sortutako arrisku egoerak saihesteko eta, noizean behin, FEetan gatazka maila handiko egoerak babesteko.

II.3. Hobekuntzarako eremuak

II.3.1. Zerbitzua betetzeko arriskua

Ez da baliabide guztiei modu berean eta une oro eragiten dien arrisku bat, arreta ematen zaien herritarren eta denbora tartearen araberakoa baita –logikoa denez, handiagoa da asteburuetan eta, bereziki, igande arratsaldeetan-.

Nolanahi ere, kontua da familia elkarguneen erabilgarritasun-egoerak praktikan agintaritza judizialak gainbegira dadin agindu duen gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioaren denbora baldintzatzen duela. Alegia, zerbitzuak epaitegiko eskaerei erantzuna berehala ematen badie ere, bisita kopurua, bisitaren denbora eta familia elkargunearen erabilgarritasun-egoeraren ordutegiak egokitu egiten dira. Horrek, ordea, haserrea sortzen du zaintza haiengan ez duten gurasoen artean eta, hala, horietako batzuk Arartekora jo dute haien seme-alabekin komunikatzeko erregimena elkargunearen espaziorik edo erabilgarritasun-egoerarik ezaren ondotik murriztu egin dela esateko. Kasu batzuetan egiaztatu dugu epaitegia familia elkargunearekin harremanetan jartzen dela, neurriak ezarri baino lehen, eta dagoen okupazio mailaren arabera asteko zein egunetan egingo den zehazten dela. Neurri horrek arrazoizkoa dirudi data jakinetan jazo daitekeen betetzeak eragindako atzerapenak saihesteko.

II.3.2. Komunikazioa organo judizial deribatzailearekin eta fiskaltzarekin

Hainbat alderditan beharrezkoa da familia elkargunearen eta komunikazioen eta hartu-emanen kudeaketa edota ikuskapena agintzen duen agintaritza judizialaren arteko komunikazioa arina eta zehatza izatea, baita fiskaltzarekin ere. Antzeman dugun hobekuntzarako premiak, batez ere, Justizia Administrazioaren funtzionamendua dauka hizpide. Edozelan ere, hori lortzea tartean dauden operadore guztien ardura da eta, ildo horretan, halaxe adierazi digute ez bakarrik familia elkarguneetako arduradunek, baita gomendio hau egiteko elkarrizketatu ditugun epaileek ere.

FEri adostutako neurriak atzerapenarekin jakinaraztea

Arrazoi hori dela bide Ararteko erakundera jo zuten pertsonen desadostasuna adierazi zuten neurriak adostu zirenetik euren seme-alabekin komunikatzen hasi ziren arte igarotako denboraren ondorioz -kasu batean, hiru hilabete-. Hala ere, egiaztatu ahal izan genuen guztiek zitazioa jaso



zutela FEk epaitegiaren ebazpenaren berri eduki eta egun gutxira eta, neurriak erabaki ostean, epaitegia izan zela zentzuzkoa den baino atzerapen handiagoarekin FEri berandu jakinarazi zizkiona.

Bildu ahal izan ditugun azalpenak ikusita, ematen du epaitegietan gertatzen diren atzerapenen arrazoia bertako administrazioko langileen mugikortasuna dela. Horren harira, bulego judizial berriaren finkatzeak arazo hori txikiagotzen lagunduko du. Hori guztia zalantzan jarri barik, gure ustez, arazo horren ondorioak ahal den neurrian arindu behar dira, espedienteen izapidetzean eragina duten baja edo ordezkapenen aurrean arintasunez erreakzionatzeko aukera ematen duten neurriak hartuz. Horretarako, zereginak berriz esleitu behar dira epaitegiak une bakoitzean dituen giza-baliabideen arabera.

FEri bere lana burutzeko garrantzitsua den erabiltzaileei buruzko inguruabarren gaineko informazio osatugabea (124/2008 Dekretuaren 12.2.b artikulua)

FEn epaitegiaren jakinarazpena jaso ostean, elkarguneak egun gutxi batzuk besterik ez ditu behar bi alderdiei hitzordua emateko. Hala ere, une horretan zoritxarrez beste atzerapen bat gertatu ohi da. Izan ere, FEri ez dizkiote beti zuzenean haiekin harremanetan jartzeko beharrezkoak diren datuak helarazten. Argi dago gurasoak beraiek lehenengo interesdunak direla eta *motu proprio* FEetara jo beharko zutela lehenengo hitzorduak zehazte aldera. Edonola ere, bertako langileak ados daude baieztatzerakoan lan hori errazago izango litzatekeela erabiltzaileak epaian ageri den prokuradorearen bitartez lokalizatu beharrean (noizean behin horixe gertatzen da), epaitegiak haiekin harremanetan jarri ahal izateko dituen telefono edo beste edozein datu helaraziko balio.

Horri dagokionez, egiaztatu ahal izan dugu epaitegi deribatzaile batzuek ez dutela behar bezala osatuta bidaltzen dekretu arautzaileak 19. artikuluan xedatu duen txostena. Izan ere, txostenak ez ditu bakarrik datu horiek barne hartu behar, FEen esku-hartzea eskatzeko arrazoiak bezalako funtsezko datuak ere gaineratu behar baititu. Horrez gain, erabiltzaileei lotutako eta jarduera judizialak burutu bitartean idatziz jasota geratu den eta esku-hartzea garatzeko garrantzitsua den edozein inguruabar ere bertan islatu behar da –pentsa dezagun zein garrantzitsua den patologia edo jokamolde nahasmenduren bat duen jakitea, edo alderdien eta alderdien eta seme-alaben arteko elkarrekintza baldintzatzen duen beste edozein gatazka elementuren berri edukitzea-. Horren inguruan baliabideetako langileek ahalik eta informazio osatuena eduki behar dute, euren kualifikazio profesionala baliatu eta legeak esleitu dizkien helburuak ahalik eta modu onenean betetze aldera. Bestela, zentzu horretan informazio eskasa jasotzea euren lana garatzeko oztopo bat da eta lan-taldeek duten inplikazio eta konpromisoa (egiaztatu ahal izan duguna) bertan behera utz dezake.





FEn txostenen garrantzia epaitegiak adostutako neurriak erdietsi nahi diren helburuak lortzeko egokiak diren ala ez baloratze aldera

Arrazoi hori dela-eta erakunde honetan aztertu diren kasu gehienetan haxe azaldu digute: familia egoeraren eboluzio positiboaren ondorioz, FEk epaitegiari jakinarazi dio, bere ustez, bere esku-hartzeari esleitutako helburuak bete direla eta, horregatik, esku-hartzea bertan behera uztea edo aldatzea egokitzat jotzen duela. Hala ere, kasu batzuetan FEk epaitegiari kontrakoa jakinarazi izan dio: eboluzio negatiboaren ondorioz, profesionalak ulertu dute adingabearen interesak babesteko, zaintza bere gain ez duen gurasoarekin dituen komunikazioak mugatu behar direla edo horietan kontrol handiagoa aplikatu behar dela. Edonola ere, guztiak bat datoz adierazterakoan epaitegiek atzerapenarekin erreakzionatu zutela txosten horien aurrean, beraz, hasiera batean familia horiei esleitutako programak aplikatzen jarraitzen zuten, FEk eragindako pertsonengan aztertu zuen eboluzioa aintzat hartuta, desegokiak edota kaltegarriak izan arren.

Zalantzarik gabe atzerapen horren zati bat justifikatuta dago; izan ere, alderdiak izan behar dira txosten horien edukiaren inguruan iritzia eman behar dutenak eta, ondoren, epaitegiak egokitzat jotzen duena erabaki behar du. Fiskaltzak ere gauza bera egin behar du eta une bakoitzean adingabearen eta justizia zerbitzuaren intereserako egokienak diren neurriak puntualtasunez hartu edo aldatu daitezten sustatu behar du. Bestalde, ezin dugu ahaztu txosten horien edukia beste judizio-elementu bat dela eta aurkezten diren gainontzeko elementuekin batera, aginpide judizialak aintzat hartu ahalko duela gairen inguruan erabakia hartzeko.

Edonola ere, azpimarratu behar dugu garrantzitsua dela FEk aldi behin epaitegira bidaltzen dituen txostenen jarraipen zehatza egitea. Modu horretan, kontraesanaren printzipioa eta alderdiak hala eskatuta jarduteko printzipioa errespetatzeko beharrak ez dio epaitegiari galaraziko arintasunez erreakzionatzea txosten horiek islatzen dituzten inguruabarren aurrean, bereziki, adingabeen beharren eboluzioari dagokionez:

- Hartutako neurriak aldatuz une bakoitzean bere ustez eragindako adingabeen interesentzat egokiena dena aintzat hartuta: adibidez, guraso eta seme-alaben arteko bisiten gainbegiratzea agintzea edo bertan behera uztea, bisitaldiak zentroan egingo direla edo zentroa trukea burutzeko besterik ez dela erabiliko zein kontrakoa erabakitzea...
- Bisitaldien iraupena modalitateari eta adingabeen beharrei (adinaren arabera) egokitzuz. Hala, adingabe baten eta bere gurasoaren arteko komunikazioa ez denean FEn gertatzen, topaketa bakoitzaren iraupena ebazpen judizialean adierazitako ordutegiaren arabera izango da. Hori bai, bisitaldiak zentroan egingo direla erabaki bada, zentzuzkoa dirudi iraupena murriztea, esparrua eta bertan egin ahal





diren jarduerak mugatuak baitira. Bestela, hori egin ezean, antsietate eta frustrazio sentimenduak eragin ahal dira eta hori kaltegarria izango da sustatu nahi den prozesua aurrera ateratzeko. Gainera, eragindakoa hazi ahala, sentimendu horiek handiagotu egingo dira. Hala gertatu zen gure esku jarri zuten kasu batean. Aita eta hamabi urteko semea asteburutan egoten ziren, zortzi orduz larunbatean eta beste zortzi orduz igandean: egiaztatu ahal izan genuen moduan, komunikazio horiek FEn egingo zirela erabaki zenean, adostu zen aita eta semea elkarrekin egongo zirela ordu horietan zehar zentroaren barruan.

- Ahal den neurrian saihestu behar da, 124/2008 Dekretuaren 6.7. artikuluan modu egokian xedatu den moduan, behin-behinekoa den neurri bat denboran zehar iraunaraztea –aztertu ahal izan ditugun kasu jakin batzuetan, neurri hori hamar urtetan zehar luzatu zen-.

II.3.3. Guraso zaintzailearentzako informazioa

124/2008 Dekretuaren 25.4. artikulua ezarri du, bisitaldia ez bada gertatzen, adingabearen zaintza bere gain hartu duen pertsonak ez agertzearen ziurtagiria jasoko duela, horren arrazoa zehaztuz, betiere, arrazoi hori berari egotzi ezin bazaio. Antzeman dugu, zentro jakin batzuetan, praktikan ziurtagiri horiek ez zirela ematen hiruhilekoko txostena epaitegira bidaltzen zen arte. Horrek zenbait kexa eragin zituen, atzerapen horren ondorioz eragindako pertsonak aurkeztuak. Izan ere, ez agertze hori baliatu behar izan dute aipatutako txostena bidali baino lehen. FEetako profesionalekin hainbat elkarrizketa izan ondoren, praktikan ziurtagiri horien berehalako bidalketa abian jarri zuten.

Bestalde, kexak jaso ditugu zaintza bere gain duen gurasoari gorabeheren inguruko informaziorik ez zaiolako ematen. Gorabehera horiek gainbegiratutako bisitaldi batean zehar adingabearen eta beste gurasoaren artean gerta daitezke. Erreklamatzailak euren buruari galdetu zioten: zein da gainbegiratzearen helburua, azkenean adingabea baldin bada gorabehera horien berri eman behar izaten duena edo epaitegia baldin bada, hiru hilabete beranduago, horri buruzko informazioa helarazten diguna?

Hiruhilekoko jarraipen txostenean gertakari horiek jasotzearen kaltetan izan gabe, egia da kasu batzuetan zentroetan horien berri eman izan dutela, bai epaitegiari, bai beste gurasoari. Egiaztatu ahal izan dugun moduan, profesionalek gertatutakoari ematen dioten garrantziaren araberakoa da, baita kasu bakoitzean gainbegiratzearen arrazoiaren araberakoa ere. Irizpide hori egokitzen jotzen dugu baina, hala ere, ez da behar bezala jaso 124/2008 Dekretuan, 28. artikuluan azken oharrak aukera hori xedatu baitu bakarrik informazioaren jasotzailea epaitegia denean. Hori dela-eta, gure ustez, araudi erregulatzailak xedapen hori zabaldu eta, gainbegiratzearen xedeak eta profesionalek gomendagarria dela diotenean, kasu horiek ere barne hartu beharko lituzke. Modu horretan, zaintza bere gain hartu duen gurasoak bisitaldi batean zehar antzematen diren gorabeheren berri eduki du.





II.3.4. Zaintza euren gain ez duten eta espetxean dauden gurasoak

Kasu horietan erabiltzen den sistema positiboa da askatasunik ez daukan pertsonaren lekualdaketa eta zaintza burutzeko errespetatzen den zuhurtasunari dagokionez, bai zentrorra sartzeko modua dela-eta, bai jagole lanak egiten dituzten agenteek uniformerik ez daramatelako. Dena den, gure iritziz, bi alderdi hobetu beharra dago:

- Aita-ama eta seme-alabaren arteko komunikazioaren intimitateari dagokionez: egiaztatu ahal izan genuen moduan, zentroren batean, gainbegiratutako bisitaldietan zehar, agenteak hezkuntza-taldearen salan egon ohi dira. Bertan, ez dute protagonistek esaten dutena entzuten baina egiten dutena ikusi dezakete noranzko bakarreko ispilu baten bitartez. Horrek intimitaterako eskubidean eragina dauka eta ezin da justifikatu polizia indarrek esleituta duten zaintza funtzioaren bidez; izan ere, funtzio horrek ez du bisitaldia bera barne hartzen –eginkizun hori zentroko profesionalen eskumenen barruan baitago- eta xedea segurtasuna bermatzea eta askatasunik ez daukan pertsonak ihes egin dezala saihestea da-eta.

Hortaz, FE gehienetan garatzen den prozedura egokia dela uste dugu, hau da, poliziak bisitaldia amaitu arte beste gela batean itxaroten du; gela horretatik bisitaldia egiten den aretoaren atea kontrolatu ahalko da, edozer gertatuz gero arintasunez jardun ahal izateko. Hala ere, polizia dagoen tokitik ezingo da gela barruan gertatzen dena ikusi. Beste kontu bat izango litzateke zentroko langileek egoera jakin batek duen arriskua ebaluatu eta gero, segurtasun publikoari eskatuko balio epaitegiak esleitu dien gainbegiratze funtzioa burutzen den tokian egoteko.

- Egiaztatu ahal izan dugu epaitegian erabaki diren zenbait komunikazio, espetxeetako agenteek baimendu badituzte ere, ezin izan direla gauzatu ez delako zaintza burutzeko polizia indarririk egon. Zeregin hori Ertzaintzari esleitu zaio. Zehazki, Donostian, FERI jakinarazi izan zaio, arrazoi horren ondorioz, 15 egunean behin bisita egiteko baimena duten zenbait pertsona bakarrik hilean behin joango direla.

Noizbait bisitaldia ez da gauzatu espetxetik zentrorra eramateko garraioa ez delako garaiz heldu. Bisitaldiak puntualtasunez hasi behar direla ondo dakite FEetan, beraz, horrelakoetan bisitaldia bertan behera utzi behar izan dute. Hori dela-eta, logikoa denez, gurasoa kexatu da, izan ere, berari egotzi ezin zaion atzerapena leporatu izan diote.





Egoera horiek zuzenbidearen aurkakoak dira, beraz, botere publikoek, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte horrelako egoerarik errepikatu ez dadila. Ezin dugu ahaztu, arlo horretan agintzen duten erabaki judizialek presoaren eskubide-betebehar bat barne hartzen dutela eta horrek euren seme-alabengan beste eskubide bat sortzen duela, bisitaldia bertan behera uztearen ondorioz modu zuzenean urratzen dena. Hortaz, haren eraginkortasuna ezin da zaintzaren ardura duen polizia indarraren eskuragarritasunaren menpe egon. Hori antolatzeko ardura duten aginpideak dagokion aginte judizialak horren inguruan agindu duena puntualki betetzeko prest egon behar dira, horixe baita euren eginbeharra.

II.3.5. Adingabea jasotzeko edo berarekin komunikatzeko baimena duten pertsonak

Erabiltzaile batzuk erakunde honen aurrean kexatu dira guraso zaintzaileak eta zaintza bere gain ez duen alderdiak jarraian aipatutako gaiari dagokionez jasotzen duen tratu desberdina dela-eta: adingabeak FETik jaso edo bertara eraman ezin dituztenean, zeregin hori konfiantzazko beste norbaiten esku utzi behar dutenean. Lehenengo kasuan, epaitegiaren baimena ez da beharrezkoa, idatziz eta alde zuzenetik zentroari jakinarazi behar diote, besterik ez. Zaintza bere gain ez duen gurasoak, berriz, ezin du zeregin hori inoren esku utzi epaitegiak ez badu berariaz baimendu pertsona hori adingabea bere izenean jaso ahalko duela. Hori xedatzeko, dekretu arautzailearen 24.1. artikuluan oinarritu da, hauxe ezarri baitu: "Hitzordura haurraren edo nerabearen zaintza eta babespea esleitua ez duen ama edo aita agertuko dira, edo, hala aurreikusia balego, beste senitarteko edo baimendutako pertsona batzuk".

Ematen du alderdi zaintzailearen inguruan jarraitu den irizpidea, gure ustez egokia dena, aplikagarriak diren legeak eta auzitegiek debekatzen ez dutena egingarria dela dioen printzipioan oinarritzen dela. Kasua lehenengo aldiz aztertu ostean eta printzipio bera aintzat hartuta, uler zitekeen, epaitegiak ez badu berariazko ukapenik ematen, malgutasun berarekin jardun daitekeela zaintza bere gain ez duen gurasoaren kasuan. Hala eta guztiz ere, bi kasuak bereizi behar dira:

- FEn gauzatzen diren bisitaldien kasuan, ezin da ahaztu epaitegiaren iritziz gainbegiratze eta laguntza sozioedukatibo zehatza behar duten krisi edo gatazka egoerei erantzuna emateko agindu direla eta horien erabilerak behin-behineko izaera duela. Horregatik, gure ustez, jarraipen hori burutzeko, zentzuzkoa da aginte judiziala izatea ama eta aita ez diren pertsonen artean erabakitzen duena nor izango den FEn adingabearekin komunikatuko dena, gainbegiratzea duten bisitaldien zein gainbegiratzetik gabeko bisitaldien kasuan.





- FEren funtzio bakarra adingabea jasotzeko eta bertara eramateko leku neutrala izatea denean, egia da zentroko lan-taldeak trukeak irauten duen denbora tarte motzean adingabearen eta gurasoen arteko elkarrekintzaren berri eman behar duela. Baina, modu berean, egia da zaintza bere gain ez duen gurasoak, adingabea jaso ostean eta epaitegiak kontrakoa adierazi ezean, ez duela epaitegiaren berriazko baimenik behar bere seme-alabarekin pasatzen duen denbora beste pertsona batzuekin partekatu ahal izateko. Izan ere, nahi duen moduan antolatu dezake eta, beharbada, ez dira une oro elkarrekin egongo (horrek ez du esan nahi bere funtzioak betetzen ez dituenik, beharbada, bere ustez, adingabearen garapenerako onuragarria baita –pentsa dezagun urtebetetzeetan, kirol jardueretan, eskolaz kanpoko jardueretan, etab.-). Beraz, logikoa dirudi askoz mugatuagoa den jarduera bat burutzeko, hau da, adingabea jasotzea bere konfiantzazkoa den pertsona baten esku uzteko, epaitegiaren berriazko baimena derrigorrezkoa ez izatea, betiere, salbuespen gisa gertatzen bada eta alde zuzenetik zeregin hori nork beteko duen idatziz jakinarazteko eginbeharra bete bada.

Zentzu horretan, tentsioa saihesteko modu bat haxe izan zitekeen: FEk, dekretu arautzailearen 21. artikuluan xedatutako hasierako elkarriketen testuinguruan eta arau horrek bigarren paragrafoan aipatzen duen segurtasun eta konfiantzazko giroa sustatzeko helburuarekin, alderdien arteko akordioak bultzatzea salbuespen gisa euren semea edo alaba jasotzeko ahalmena edukiko duten pertsonen inguruan.

II.3.6. Instalazioen irisgarritasuna

Beharrezkoak diren berritzeak burutu behar dira mugikortasun urritua duten pertsonen irisgarritasuna ziurtatze aldera. Egiaztatu ahal izan genuen moduan, horietako batzuk ez dira irisgarriak eskailera-mailak eta zabalera desegokia duten ateak baitituzte. Izan ere, behin ama bat gurgildun aulkian joan zen eta bisita kanpoaldean egin behar izan zuten.

Aurreko gogoetak oinarri hartuta, egokitzen joan dut gomendio hau Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari, foru aldundiei eta arlo horretan eskumenak dituzten udalei zuzentzea eta, era berean, justizia administrazioari eta fiskaltzari helaraztea bertan jasotako hausnarketaren berri izan dezaten.





GOMENDIO OROKORRA

1. Zerbitzuak asetzeko arriskuaren aurrean, FEek deribazio judizialaren eskaerari lotuta dituzten bitarteko material eta giza bitartekoen ebaluazioa egitea ezinbestekoa da, horrela, ziurtatuko da horien dimentsioa une oro epaitegietako eskaerei erantzuna emateko egokia dela.
2. FEen eta epaitegi deribatzaileen arteko nahitaezko koordinazioari eta lankidetzari dagokionez, adingabearen interesa ondorengo alderdien hobekuntzarekin erlazionatu dugu:
 - a. FEri azkar jakinarazi behar zaizkio epaitegian erabakitzen diren neurriak eta bi instantzien arteko koordinazioa ezinbestekoa da asteko zein egunetan burutu behar diren zehazte aldera.
 - b. FEk erabiltzaileekin zerikusia duen edozein inguruabarri buruzko informazio osoa jaso behar dute, jarduera judizialean zehar jaso eta haren esku-hartzea gauzatzeko garrantzitsua bada.
 - c. FEk epaitegira bidaltzen dituen txostenen jarraipena egin behar da une bakoitzean aplikatzen diren neurriek adingabeen eboluzioari erantzun diezaioten.
3. Guraso zaintzaileek puntualki FEren eskutik komunikazioetan zehar jazo diren gorabeheren berri edukiko dute, betiere, profesionalen iritziz, garrantzitsuak baldin badira.
4. Espetxean dauden eta FEra espetxetik eraman behar dituzten zaintzarik euren gain ez duten gurasoei dagokienez:
 - a. Jagoletza lanak burutzen dituen polizia indarrei esleitutako zaintza lanek ez dute eraginik izan behar ama edo aita eta seme-alabaren arteko komunikazioaren intimitatean.
 - b. Presoa lekualdatzeko polizia indarren eskuragarritasunak une oro adingabeek euren gurasoekin komunikatzeko duten eskubidearen eraginkortasuna bermatu behar du, ebazpen judizialean adostutako terminoetan.
5. Zaintzarik ez duen gurasoak bere konfiantzazkoa den pertsona bati adingabea FEen jasetzeko ardura emateko aukera eduki behar du, betiere, salbuespen gisa gertatzen bada eta zaintza bere gain duen alderdiari eskatzen zaizkion berme berdinekin. Horren harira, zentroko langileek gai horretan alderdien arteko akordioak bultzatu behar dituzte, esku-hartzea baino lehenagoko elkarriketen testuinguruan.
6. Beharrezkoak diren berritzeak burutu behar zentro guztietan dira mugikortasun urritua duten pertsonen irisgarritasuna ziurtatze aldera.

